


Arrasate

P R E S S

1995eko
Azaroak 24
298. zenb.

KULTURA
Ruper
Ordorika

ELKARRIZKETA
Charo
Guerrero



SHOT!

musika

KONTROLPEAN



Zeramika
erakusketa
eta salmenta

Uribarri Etorbidea, 22-B
Tfnoa: 79 81 80 • Faxa: 79 81 80
ARRASATE

ALMACENES ARRASATE

Musakola auzoa, 26
Kataide industrialdea, 3. pabilioia
Tfnoa: 77 13 52 Faxa: 77 13 13
ARRASATE



UDAZKENEKO ESKEINTZA

- Berogailu kataliltikoa 13.900 pta.
- ASPES ikuzgailua 34.500 pta.
- ASPES bi atedun hozkailua 48.500 pta.
- ASPES "combi" a 1,70 panelgarria ... 69.900 pta.
- Telebista 14" 27.500 pta.

ALMACENES ARRASATEⁿ
erostearen abantailak:

- Muntaia eta erabilitako
elektragarria batzea dohainik
- 24 orduko S.A.T.a
- 5 urteko garantia
- Biltegi prezioak

Irakasletzaren aldaketa

Aspaldiko lagun zahar bat ikusia dut berriki, irakaslea dena. Eta bere lanaz jardutean, haur eta gazte zenetik hona irakaskuntzan gertatutako aldaketak izan genituen mintzagai.

Lehen, bere haurtzaroan, irakasleak agindua betetzen zuten txintik atera gabe ikasleek. Men egiten zitzaion maisu edo maistrari, guraso, apaiz, mediku eta adineko jendeari bezala.

Eskolako sistemaren funtzionamenduan, euskaraz egiteagatik zigortzen zituzten haurrak; ulertzen ez zituzten testuak idatzi arazi eta gero buruz ikastera behartzen zituzten...

Baziren irakasle onak ere sistema hartan: ikasleak ulertzeko moduan erakusten saiatzen zirenak; aurreratzeko, etxeko lan bereziak ematen zizkienak; ikastera animatzen zituenak...

Irakaskuntza mundura iraultza ekarri zuena ikastolen mugimendua izan zen, duela 30 urte inguru. Ikastolak hedatu eta arrakasta lortu dute guraso eta irakasleek zinez konprometitu direlako aurrera ateratzen, euskal kultura irakaskuntzan sartuz eta pedagogi berritzaileak martxan jarriaz, euskaraz.

Eta esperientzi honen indarrean, beste eskoletako hainbat irakasleek ere adorea eta ausardia izan dute erdal giroan euskaraz erakusteko. Eta bide honi ekin

diote beste hainbat ikastetxek ere.

Bitartean, aldatu egin dira gizarteko harremanak eta indarrak ez du irakasleak lehen zuen autoritaterik: diskutitu egiten die ikasleek gaia, emateko era, ebaluaketa... ikasleak protagonista bihurtu dira.

Eta bere planteamenduak berregitera behartzen du irakaslea, horrek dakarren tentsio eta estresarekin, askotan.

Egoera honetan etorri da "Euskal eskola publikoaren legea" deritzana. Hainbat gatazka eta tirabira sortu ditu honek ikastetxeen barnean; batzutan, lanpostua ziurtatzea lehenengo helburu bihurtu du edo eta arazo ekonomikorik ez izatea.

Hor daude lagunartea, TB, eskolaz kanpoko ekintzak; baina familia eta hezkuntzaren esku dago bereziki jenerazio berrien jarrera eta gaitasuna euskal gizarte integratu bat lortzeko.

Hortarako, ikasle bakoitza bere gaitasunak lantzeko baliabideak eskuratzeari bultzatu behar du hezkuntzak. Honela, ogibidea atera eta bizitzaz gozatu ahal izango du.

Eta irakaslea da horren eragile, hortarako prestatu eta laguntza jaso behar duena. Ba ote dauka gaur egun duela urte batzuk zuen gisako gurasoaren laguntzarik?

RUFINA OLASAGASTI

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**



Memesa
79 42 22




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mainer Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maitte Martine, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-Ixe komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzerztatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

IBARRA
Garajea S.L.

 **EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

•••••

Salto Del Negro: Euskal Herritik 2.000 Km.ra

Espetxe honetara lehen preso politikoak 1990. urtean iritsi ziren dispersioaren ondorioz. Geroztik oraingoarekin kontatuz, bederatzigose greba burutu dituzte, horietatik 93an hiru gose grebatan 107 egun gehitzen zutelarik.

Zergatik jotzen dute presoek borroka mota gogorrenera? Espetxe honetan bizi baldintzak funtzionari eta zuzendariaren nahi, kapritxo eta gorroto arbitrarioaren arabera daude, giza eskubide minimoenak errespetatzen ez direlarik; espetxe zaintzako epaileen autoak, presoek eskubideak onartzen, betetzen ez direlarik. Hauxe da "estado de derecho" deitzen dutena?

Espetxe honetan jipoiak, katxeok bilusik, egunean hiru aldiz errekuentoak, hamar minutuko bisitak, gutunak interbenituta, hogeitahiru ordu zeldan isolatua irrati, liburu eta ia argirik gabe... Egunerokotasun bat dute!! Horregatik jotzen dute gose grebara!!

Bertan, J. M. Zabarte arrasatearra dugu, 93ko gose grebaren ondorioz oso ahul eta osasun egoera larrian gelditu zen (orain Tenerife-koak bezala). Txandakako gose greba horretan, non eskaerak beste gose grebatakoen berdinak diren, aste honetan berari tokatzen zaio. Jasan ahal izango du?

Urruntasun honetan, preso bisitatzeko 80.000 pta. behar dira, konturatzen zara? Beraz bisitak (batzutan hamar minutukoak) urtean lau alditan izaten ditu... Horregatik eskerrak eman zuen elkartasun ekonomikoa adierazi duzuenoi (bonoak erosten...), horrela gose greban dauden eta egon diren

presoen senideei bidai bat ordaindu zaielako.

Baina presoek elkartasun humano eta politikoa behar dute, hauek Euskal Herrira ekartzeko, gauza hauek ekiditeko eta sakabanaketaren diseinatzaile izan diren PSOE eta PNVri muturrean emateko!

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

•••••

Lehen aldiz euskaraz sinatutako alokairu kontratua

Makina bat aldiz ohartarazi gaituzue, zuek eta zuen antzerako elkarteek, gure publizitatean euskarari ez geniolako eskaintzen beharko lukeen besteko atentziorik. Eta horrela dela onartu beharra dugu; merkatuaren interesak eta euskararen defentsarako baldintzak uztartu errazak ez izateagatik sarritan, eta beste zenbaitetan gure ahalmen eko-

nomikoak mugak jartzen dizkiolako gure borondateari.

Baina gaur berri pozgarri bat daukagu zuentzat. Hau da, gaur, gu bitarteko ginela (eta Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin) sinatu da lehenengo aldiz alokairu kontratu bat euskaraz.

Badakigu hau guztiz normala izan beharko litzatekeela, baina, ez denez urrats garrantzitsu honen berri eman nahi dizuet.

Gure publizitatean ia beti adierazten dugu kontratuak euskaraz egiteko ahalmena eta hau izan da lehenengo fruitua.

Beharbada, kanpotik ikusita ez da izango garrantzizko gertaera, baina gure ustez, euskara ez bada eguneroko erlazio ekonomiko eta juridikoetarako heldzen ez da sekula "normalizatuko".

Agur bero bat.

**JESUS MARKAIDE.
DEBA GARAIA INMOBILIARIA**

Gutunak eta anonimoak

Hainbat gutun jaso ditugu erredakzioan azkenaldian, baina sinadura barik edo sinadura egiazkoa ala gezurrezkoa den baieztatzeko biderik eman barik. Gainera batek baino gehiagok, edukia medio, zalantzan jarri du gure argitaratzeko borondatea. Hori dela eta, pare bat gauza argitu beharrean gaude:

- Iristen zaizkigun gutun denak argitaratzen ditugu, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte: 1) Sinatzailearen izena, karnetaren zenbakia eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inzialeaz argitaratu nahi izan. 2) Ez daitezela 20 lerrotiko gorakoak izan, tokia dagoenean luzeagoak ere onartu ditugun arren.

- Identifikatu barik etorri diren edo datozen gutunak (anonimoak) ez ditugu sekula argitaratu eta ez ditugu sekula argitaratuko.

Kantatzeko ohiturarik bai? Nor izan zen Santa Zezilia?



**Imanol Ajuria
Langilea
(59 urte)**

Horixe dakidala, nola ez dut jakingo ba? baina hala ere ez, nik ez daukat kantatzeko ohiturarik baina nire emazteak bai.



**Kontxi Iñarra
Etxekoandrea
(45 urte)**

Badakit nor den Santa Zezilia baina ez dut kantatzeko ohiturarik.



**Mariano Urrutia
Langilea
(62 urte)**

Ez, ez daukat kantatzeko ohiturarik Santa Zezilia nor den? musikarien patroia.



**Zaraioa Gesantza
Etxekoandrea
(31 urte)**

Bai, egunero kantatzeko ohitura daukat, horregatik niretako egun guztiak Santa Zezilia dira.



**Julian Ruiz
Iturgina
(25 urte)**

Ez daukat kantatzeko ohiturarik eta gainera ez dakit nor izan zen Santa Zezilia, ideiarik ere ez daukat.



**Kontxita Azkargorta
Etxekoandrea
(67 urte)**

Kalean ez dut abesten baina etxean bai. Santa Zezilia egunean, gainera, elizara joaten naiz meza oso polita izaten delako.



**Juan Migel Epelde
Argazkilaria
(58 urte)**

Bai, badakit nor den Santa Zezilia baina ez dut kantatzeko ohiturarik.



**Itziar Elespe
Epa-ko irakaslea
(32 urte)**

Bai, badakit nor den Santa Zezilia, eta gainera gustatzen zait kantatzea noizean behin.

**ANBOTOSTE
TABERNA**

- EGUNEKO MENUA
- PLATER KONBINATUAK

ARRATSALDEKO 4ETAN
ETA GAUEKO 10ETAN
BIDEO-FILMEAK

**ASTEBURUTAN
GOIZEKO 6ETATIK ZABALIK!**
LARREA PLAZA, 2 BEHEA
TFNOA: 79 68 30 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	*
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 45
• Espezialitateak	77 05 78
	77 12 63
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

Deba Garaiako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

Monterongo liburutegia

Monteron	77 01 05
----------------	----------

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 24

Egunez eta gauez: Morales, San Andrés.

Larunbata 25

Egunez eta gauez: Azkoaga, Ferrer, Ibas.

Igandea 26

Egunez eta gauez: Español, Iturriotz.

Astelehena 27

Egunez eta gauez: Corcuera, Musakola.

Asteartea 28

Egunez eta gauez: Iriz, Ercuquin.

Asteazkena 29

Egunez eta gauez: Amezua, Santamaina.

Osteguna 30

Egunez eta gauez: Ruiz, Maala.

24 OSTIRALA

• ZINEA

“La locura del rey Jorge” 7etan eta 10etan

• MASAIA IKASTAROAREN HASIERA

Hasierako masaia ikastaroa goizeko 9.30etatik 11.30etara Famili eta Gizarte Hezketa-rako zentruan.

• MODA DESFILEA

Institutoko ikasleek antolatuta Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. Prezioa: 30€ / pta. aurrez erosita eta 40€ / pta. takilan.

• EMAKUMEEN TOPAKETAK

Topaketak: “Emakumeen presentzia Arrasateko elkarte-etan”. Ordutegia: arratsaldeko 7etatik 9etara. Dinamizatzailea Eskarne Larrinaga. Udaletxeko pleno aretoan. Emakume eta Kultura sailak antolatuta.

• ENKARTELADA

Enkartelada Seberon arratsaldeko 7etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

• BIZIKLETA IBILALDIA AEDNekin

Bardetara bizikleta irteera domekara arte. Irteera arratsaldeko 8etan AEDn.

• KONTZERTUA PARROKIAN

Capilla Peñafloredaren kontzertua San Juan Parrokian arratsaldeko 8etan. Goikobalu Abesbatzak antolatuta.

• POESIA EMANALDIA ESKORIATZAN

Lubaki bandaren poesia emanaldia Eskoriatzako Kultur etxean arratsaldeko 7etan. Axtroki Euskara taldeak antolatuta.

25 LARUNBATA

• ZINEA

“French kiss” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• EMAKUMEEN TOPAKETAK

Topaketak: “Emakumeen presentzia Arrasateko elkarte-etan”. Ordutegia: goizeko 10etatik 2etara. Dinamizatzailea: Eskarne Larrinaga. Udaletxeko pleno aretoan. Emakume eta Kultura sailak antolatuta

• UNED BIZIRIK LEMAPEAN MANIFESTAZIOA

Eguerdiko 1.30etan Bergaran.

• MANIFESTAZIO NAZIONALA

“Amnistia - Askatasuna” lema-pean manifestazio nazionala Ziburun. Arrasateko arratsaldeko 3etan irtengo da autobusa Garibaitik. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

• SANTA ZEZILIA KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko Ganbara orkestrak kontzertua eskainiko du San Juan Parrokian arratsaldeko 8etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

• EUSKARAREN ASTEA ESKORIATZAN

Arratsaldeko 5etan Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazokein jaialdia pilotalekuan. 8etan Gardokirekin euskal txikiteoa eta gaueko 9etan bertso afaria Toki Alai jate-txean. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Mañukorta. Axtroki Euskara taldeak antolatuta.

26 IGANDEA

• ZINEA

“French kiss” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• ENKARTELADA SEBERON

Enkartelada Seberon arratsaldeko 7etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.



ERAKUSKETA MONTERRONEN

Erakusketaren gaia: “Bizkaiko Golkoko itsas bazterra” azaroren 27tik abenduaren 3a arte Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

PINTURA ERAKUSKETA HARRESIN

Estibaliz Ormaetxearen pintura erakusketa Harresi aretoan abenduaren 10a arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

27 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"French kiss" 7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal herria lemapean kontzentrazioa arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

28 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"French kiss" 7etan eta 9.30etan.

UMEZAINTZAKO BAZKARIA

Umezaintzako 25. urteurreneko ekintzen artean abenduaren 16ean bazkaria izango dute. Bazkari horretan parte hartu nahi duenak azaroaren 29a baino lehen izena eman beharko du Umezaintzan edo 79 10 02 zenbakira deituta.

HIESaren INGURUKO IHARDUNALDIAK

Azaroaren 28tik abenduaren 1era: goizeko 10etatik 12etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara, seropositiboek testigantzak jasotzen dituen erakusketa berezia entzungai izango da San Frantziskoko klaustroetan. Abenduaren 1ean, arratsaldeko 6.30etan kalejira Tunantes Del Norte taldearekin, 7etan dultzaineroak, 8etan giza katea Herriko Plazan.

29 ASTEAZKENA

- **TXOKOLATEGINTZARI BURUZKO HITZALDIA**
"Txokolatearen tradizioa" Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Uribarriko Jubilatu Etxeak antolatuta.

- **HITZALDIA**
Gaia: "Drogen trafikoa eta Galindosarea". Hizlariak: Pepe Rei EGINEKO kazetaria eta Txus Congil ASKAGINTZA eta Adoreko kidea. Monterronen arratsaldeko 7etan. Arrasateko Askagintzak antolatuta.

- **HITZALDIA**
Gaia: HIESa. Hizlariak: Joseba Portu Zapirain medikua, Victor Estefano seropositiboa eta Domi Korta Deba Garaiko HIES Ekimeneko kidea. Arratsaldeko 7etan, San Frantzisko inguruko lokalean.

30 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"Boca a boca" 7etan eta 9.30etan.

- **ZINE KLUBA**
"Caro diario" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.

- **TXOKOLATEAREN MUSEO-RA IRTEERA**
Tolosako txokolate museora irteera arratsaldeko 3etan. Uribarriko jubilatu etxeak antolatuta.

- **JOSE M^a ARIZMENDIARRIETA X. LEHIAKETA**
Eskola Politeknikoan Gizabidea Fundazioak On Jose Maria Arizmendiarrietaren omenez antolatutako ekintzak. Arratsaldeko 6.30etan aurkezpena Jesus Mari Herrasti lehendakariaren eskutik. Ondoren Jabier Retegik hitzaldia emango du. Hitzaldia bukatuta Jose M^a Arizmendiarrieta X. lehiaketaren sari-banaketa.



MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Besaidek mendi irteera antolatu du abenduaren 6, 7, 8, 9 eta 10erako. Irteera Sant Maurici, Aiguas Tortas (LLeida) izango da. Izen ematea azaroaren 27, 28 eta 29an arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA FISIKOA

Abenduaren 12, 14, 19, 21, 26 eta 28an arratsaldeko 7etatik 8.30etara Oinarrizko prestakuntza fisikoko ikastaroa Debako Kultur Elkartean. 16 urtetik gorakoentzat. Prezioa: 1.500 pta, Deba Garaikoentzat eta 2.000 pta. gainontzekoentzat. Izenemateko epea abenduaren 5an bukatuko da. Deba Bailarako Euskara eta Kirol zerbitzuak antolatuta.

“...Eroskiko hasieretatik, urrun dagoen 1970. urtean, kontsumitzaileari informazio emateko kezka banatzen ziren orrialde sinple batzuetan gauzatu zen. Orrialde haietan produktibitatea protagonista zen munduan kontsumitzaileek jokatu beharreko paperaren inguruko lehen ideiak garatu ziren.

Orain gutxira arte eta hamazazpi urtez, aldizkariko “consumerismo” deitutako orrialdean etenik gabeko kolaborazio bat egin behar izan dut. Orrialde horri esker kontsumitzaile elkarteetan bizi izan diren berrikuntzak gertutik ezagutzeko aukera izan dut, gizartean gertatu den eboluzioan esku bat botiaiz.

Kontsumitzaileak duen informaziorako eskubidea lortzeko eman diren aurrerapausuak egin den bidearen erakusle bikainak dira”.

Antonio Cancelo, 200. zenbakia azaroak 95.

EROSKI

“Argia: Ez al dizu aurreko Kixkur-ekin alderatua izateak beldurrik ematen?”

Apur bat bai hasieran, baina Kixkur berarekin egon nintzen hitz egiten... eta ez dut halako beldurrik. Eurak zaharregiak edo ikusten zituztelako kendu zituzten. Ni hartu ninduten gazteago izanez, umeekin hobeto izatearren. Ez dut uste aurrez zegoen Kixkur-en papera eta nire berdinak direnik.


Hasieran, lehenengo programa aurkeztu nuenean, ez zitzaidan batere gustatu. Baina orain mordo gustatzen zait, gainera kazetaritza ikasteko asmoz nabil. Hala ere gehiago gustatuko litzaidake egunkariaren baten edo irratian lan egitea”.

Maier Uranga, 1995eko azaroak 19.

ARGIA

Zer berri aurtengo Nafarren Egunean?


Azken urteetan bezala abenduaren 3an Nafarren Eguna ospatuko dugu Arrasaten. Aurtengoarekin ospakizun hori burutzen den bostgarren aldia izango da. Lehenengo urteetan Arrasaten bizi garen nafarrok elkarten ginen egun hori ospatzeko, baina urtetik urtera inguruko herrietako jendea ere hurbildu zaigu. Oraingoan Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta seguruenez Bergarako nafarrek bilduko gara. Beraz, jaia Deba Garaia mailan egingo dugula esan daiteke eta 120 lagun inguru batuko gara.



Jose Luis Lana
Antolatzailea

Antolatu ditugun ekintzak aurreko urteetako antzerakoak izango dira baina badago nobedaderik. “Aires Navarros” dantza taldearen eskutik meza nafarra egingo dugu. Meza amaitzerokan, gainera, urtero moduan talde horrek dantzan egingo du plaza.

Horrelako ospakizunek jai giroan egun bat pasatzeko aukera emateaz gain, aurrera begira ditugun asmoen inguruan iritziak ezagutzeko ere balio izaten dute. Hainbat lagun nafarren elkarrekin eratzekotan ari gara eta estatutuen zirriborroa ere eginda dugu. Nafarren egunera hurbiltzen direnei asmo horren berri emango diegu euren iritzia zein den jakiteko. Elkarrekin eratu nahi dugu, era horretan Udaletxetik eta Nafarroako gobernutik dirulaguntzak lortzea errazagoa izango delako. Elkarrekin sortu nahi badugu, gainera, gauza batzuk argi utzi beharko ditugu; hala nola, elkarrekin zein jarraipen izango duen.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Greba zozketaren kontra

Soldadutzarako zozketaren kontra protesta egiteko hainbat ikaslek greba egin zuen joan den ostegunean. Eguerdian manifestaldia egin zen herrian eta inguruko gazte askok parte hartu zuen. Manifestaldian intsumisioaren aldeko eta soldadutzaren aurkako oihuak bota zituzten gazteek.

95-96 ikasturteari ongi etorria

Eskola Politeknikoan ikasi eta astean zehar Biteri Egoitzan bizi diren ikasleek, 95-96 ikasturteari ongi etorria egin zioten ostiralean. Amaia antzokian burutu zen ekintza akademikoan Gregorio Monreal, Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta eskolako hainbat arduradunek hitzegi zuen. Amaieran, egindako merituengatik, garaikurra jarri zieten Biteri Egoitzan bizi izandako ikasle batzueri. Horrez gain, ohorezko garaikurrak jarri zitzaizkien Javier Mongelosi, MCCko lehendakari ohiari, Mila Arregiri, eskolako ekonomi departamentuko arduradunari eta Perfecta Fiz-i, hainbat urtetan Biteri Egoitzaren garbitasunaz arduratu den emakumeari. Ekitaldi ofiziala bukatzean, Maskarada taldeak "La importancia de ser Ernesto" lana antzeztu zuen.



Eskola Politeknikoa ISO 9001 ziurtagiriaren jabe

Heziketan lortu duen kalitateagatik, ISO 9001 ziurtagiria eman zion ostiralean AENORek (Espainiako Normalizazio eta Egiatzapen Elkarteak) Eskola Politeknikoari. Era horretan, Arrasatekoa da estatuan agiri hori jasotzen duen lehendabiziko unibertsitate eskola. Orain dela lau urte kalitatearekin arduratzen hasi zen eskola eta iaz, ziurtagiria lortzeko aldaketak egiten hasi zen. Jesus Larrañaga, AENOReko lehendakariaren eskutik jaso zuen ziurtagiria eskolako zuzendariak.

Presoen aldeko manifestazioa

Euskal preso politikoen eskubideen alde zenbait ekintza burutu zen pasa den astebukaeran. Domekan eskualde mailako manifestazioa burutu zen Arrasaten, eta inguruko herrietako jende asko hurbildu zen. Bukaeran lagun batzuk Batzokira eta Elkartexera hurbildu eta ondorioz, istilu batzuk gertatu ziren bertan zeuden ertzainekin. Ertzantzak hiru gazte atxilotu zituen eta identifikatu ondoren aske utzi. Gauean, gainera, Musakolako edukiontzi bati su eman

zioten. Hori dela eta, Ertzantzak beste gazte bat atxilotu zuen, baina identifikatu ondoren hori ere aske utzi zuen.

Ostiralean, berriz, gose greba utzi zuten udaletzeko pleno aretoan itxita egon diren sei arrasatearrek, Tenerife IIko zuzendariak presoen eskariak beteko zituela onartzean.

LABen erakusketa

Inguruko enpresetako egoera azalduz erakusketa jarri zuen zapatuan LAB sindikatuak. Kalean jarri zituen argazkien bidez,

92ko eta gaur egungo lan egoera zein den konparatu zuten. Sindikatu abertzalearen esanetan, sozietate anonimoetan eta kooperatibetan lanpostu asko galdu da eta egoerak txarrera egin du. Horregatik lehenbailehen neurriak hartzea eskatu dute. Neurrien artean ordu extrarik ez sartzea proposatzen dute.

Kontzertu bikaina

Oso ona izan zen Letoniako orkestrak domekan eskaini zuen kontzertua. Amaia antzokia erdiraino bete zen, eta Brahms eta Sibelius-en obrak entzun eta gero kontzertuan izandakoak pozik atera ziren. Ikusleen esanetan, Thomas Wulfson bibolinjolearen emanaldia izan zen ikusgarriena.

JAIOTZAK

- Mikel Otxandiano Etxagibel. Azaroaren 3an.
- Monika Jurado Pablos. 9an.
- Esther Jurado Pablos. 9an.
- Iraia Barrionuevo Sanz. 13an.
- Aitor Etxezarreta Learreta. 15ean.
- Lur Puente Agiriano. 17an.

HILDAKOAK

- Ignacio Gorostiza Onaindia. Azaroaren 9an. 88 urte.
- Francisca Martín Barquero. 16an. 89 urte.
- Isabel Nuñez Meltxior. 16an. 80 urte.
- Concepción Ayastui Arana. 17an. 70 urte.

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

lurrindegia *perfumeria*
ZARRAOA

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



* Sagra Lopez

Emakumezkoak baztertzen dituztenean

Zergatik, hain diskriminatuak sentitzen diren emakumeak ez dira beraien egoera salatzen ausartzen? galdetzen didate askotan. Hara, nik oso garbi ikusten dut, erreprimituak eta irainduak dauden izaki guztiak bezala, gerta daitezkeen errepresaliei beldurra diete emakume gehienek. Beste kasu askotan, lotsa sentitzen dute. Badaude beste batzuk, beraien zapalkuntza konturatu ere ez direnak egiten. Hain baztertuta daude!

Gertu dauzkagu, emakumeak baztertuak izan diren kasuak. Hona hemen, nik ezagutzen ditudan exenpluak:

- Lan mundutik bota egiten duten emakumea haurdun egoteagatik "etorri haurra eduki ondoren" esaten diote.

- Azterketa bat egitera aurkeztutako emakumei tes-

tualki esan zieten: "Ez dut nahi inork denbora alferrik galtzea, beraz, zera esango dizuet: gizonetzkoa nahi dugu postu honetarako, bulego baten edota pisu asko duen gauza bat jaso ahal izateko". Baina, azterketan ez zegoen froga fisikorik.

Beraien sinadura ematen edo tratu txarrak salatzen ausartzen ez diren emakumeak, errepresalia laboralak edo, beraien senarraren bel-

durraren menpe daude.

Egoera ekonomiko estua, euren haurrak elikatzeko dirurik ere ez duten emakumeek, Diputazioari laguntza eskatu diote baina hilabeteak pasa dira erantzunik gabe; nahiz eta legez, erantzuna emateko 30 egun eduki.

Guzti hau ez da Indian gertatzen, emakume guztiak hain gaizki dauden lekuan, baizik eta hemen bertan, Arrasaten.

Emakume asko beraien egoeraz lotsatzen dira, baina gure gizarteak lotsatu behar luke.

Noizbait, herri honen lekuren batean, irakurri nuen: "Ningún hombre, amo, ni siervo..." amets egingo nuen? ...edo beharbada, idatzi zuenak amestuko zuen?

* EGIZANEKO PARTAIDEA

.....
"Guzti hau ez da Indian gertatzen, emakume guztiak hain gaizki dauden lekuan, baizik eta hemen bertan, Arrasaten"

USTEAK USTE

LANPOSTU BERRIAK

Aho eta belarri guztietan dabilen berri da: Confebask enpresa gizonak (emakumerik bate?) puntako liberalismo ekonomikoaren araudiak legedian jarritako, hoge mila lanpostu sortuko omen dituzte.


Orain nik dudak lan honen prespektiba, sentimendua eta beste gaitasun asko murrizten digula diote, eta behar bada, horregatik nire zalantza eta ulertezinak: Lanpostu horiek berriak izanen dira, hau da, jadanik daudenetik gehi? Lanpostuak desagertzen direnean, merkatuak hala beharirik, salmentarik ez, modernizazioak eskaturik... Sortzeko, arrazoi horiei bueltako bidaia egin beharra zegoela pentsatzen nuen... Ala, badaiteke orain behin behineko diren lanpostuak finko bihurtu, eta orduan hoge mila... sortu? ...Baina, behin behineko lanpostuak behin behineko behar betetzeko "eman" behar direla ez dio, ba, legeren batek? eta enpresarioek legea beteko ez balute, orain dauden bezainbeste instituzioetariko batean batek salaketa jarria izanen zuen dagoeneko!... Ai, hala balitz! baina zoritxarrez, oraindik ere, askotan, duintasunak, irauteko beharri tokia uzten dio... eta egoera honetan emandako "askatasunari" esker, enpresario batek eta langile batek, "berdintasunez", lan baldintzak kontratatzen dituzte.

NEKANE SAN MIGUEL

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50



Hurrengo ikasturtean derrigorrezko eskolaratzea 16 urtera arte luzatuko da.

Mapa eskolarra eztabaidatzen hasiko dira bailaran

Datorren ikasturteetik aurrera derrigorrezko eskolaratzea 16 urtera arte luzatuko denez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) izeneko ziklo berria zein ikasketak eskainiko duten zehaztu du Hezkuntza Sailak. Mapa eskolarra deitutakoa atzo, ostegun, Legebiltzarrean aurkeztekoa bazen ere, astean mapa horren berri eman dute egunkari batzuk.

Egunkarietan argitaratutako berrien arabera eta sare publikoari dagokionez, Arrasateko Batxilergo Institutoan eta Musakolako Herri Eskolan emango dira DBHko eskolak, hau da, 12 urtetik 16 urtera artekoak. Haur Hezkuntza eta Lehenengo Hezkuntza, berriz, Erguinen, San Andresen eta Musakolan emango lirarteke. Ziklo horrek agintzen duenaren arabera, aurten OHoko 6. maila egiten ari direnak datorren urtean DBHko lehendabizikoan hasiko dira. Aurten zazpigarrena egiten ari direnak, berriz, DBHko

bigarreanean izango dira datorren urtean.

Sare pribatuari dagokionez, Hezkuntza Sailak baldintza batzuk jarri ditu dirulaguntzak jasotzen jarraitu nahi duten ikasletxe pribatuendako. Baldintza horiek betetzen dituzten ikasletxeek dirulaguntzak jasoko dituzte. Felix Ormaetxea, Hezibideko zuzendariaren esanetan, "Almen, San Viator eta San Frantzisko Xabier ikastolek ez dute arazorik izango, baldintzak betetzen dituzte eta". Ormaetxearen berbetan, gainera, "Orain dela hainbat urte erreforman murgiltzen hasi ginenez, DBH delakoak Hezibide barruan dauden ikasletxeei ez die aldaketa handirik ekarriko".

Asteartean, Hezkuntza Saileko ordezkariaren bat Arrasatera etorriko da Jaurlari-tzaren proposamena azaltzera. Goizean Eskola Publikoetako zuzendariari emango zaie mapa eskolarraren berri eta arratsaldean kontseilu eskolarraren aurrean aurkeztuko da.

Azokako bi saltoki lehiaketara

Azokako bi saltoki lehiaketara atera ditu Arrasateko Udalak. Batean taberna jarri ahal izango da eta bestean arrautzak eta elikagai izoztuak saldu ahal izango dira. Kontuan izango diren baldintzak: antzeko iharduere-tan esperientzia izatea eta hizkuntz gaitasuna. Proposamenak abenduaren hamai-ka baino lehen aurkeztu beharko dira Udalean.

Laubide aparkalekuari buruzko ikerketarik ez

Laubideko aparkalekuaren erabilera bultzatzeko ikerketa egitea pentsatu bazen ere, azkenean azterlana ez egitea erabaki du Udalak. Ikerketaren ardura enpresa bati eman behar zitzaion, baina kostua handia izango zenez bertan behera geratu da asmoa.

Hala ere aparkalekua bultzatzeko alternatibak aztertzen jarraitzeko asmoa dago. Partikularrei edo merkatariei aparkalekuko toki bat alokatzeko aukera aztertuko du Udalak besteak beste.

Lau Bideko aparkalekua orain dela urte eta erdi zabaldu zen, eta erdi aldean autoa uzteko arazoak egoten badi-ra ere, aparkalekua gidari gutxik erabiltzen du. Udalaren aparkalekuak bi solairu ditu eta guztira 160 autoren-dako tokia dago.

Ikerne Heriz Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak

MILARIOX Taberna-jatetxea Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
 - Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...
- Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69



Takoloko eta Bedoñako bidegurutzeak batzeko asmoa jasotzen du proiektuak.

Takoloko bidegurutzea hobetzeko proiektua gertu

Takoloko bidegurutzea hobetzeko proiektua bidali dio Foru Aldundiak Udalarari. Orain dela gutxi heldu da proiektua Udaletxera, eta hilabetez jendearean egon ondoren lehenbailehen egiten hasteko asmoa dago. Lehenago hala ere, Fagorren jabetzakoak diren lursailak eskuratu beharko ditu Arrasateko Udalak.

Diputazioak bidalitako proiektuan Takoloko inguruan dauden bi bidegurutzeak, Takolokoa eta Bedoñakoa, batzeko asmoa dago. Horren ordez, glorieta erako bidegurutze zirkularra egitea aurrakusten da, norabide guztiak batuz. Bedoñara joateko zubia, berriz,

bota egingo da eta berria eraikiko da Takoloko parean. Zubi horrek Deba Ibaia estaliko du.

Proiektuak ematen duen irtenbidea, errotonda eta zubi berria egitearena, bere garaian Arrasateko udalak proposatu zuen. Olandixotik Alecoopera tunela egiteko Udalak zuen asmoa, berriz, ez da proiektuan agertzen.

Proiektua jendearean jarri eta onartzen denean, obra adjudikatu egingo da. Ia 153 milioi kostako da obra egitea. Proiektua Arrasateko LKS enpresak egin du Diputazioaren eskariz.

Argi barik geratu

Aberria baten ondorioz Gesalibar, Erguin, Uriburu eta Musakolako bizilagunak argi barik geratu ziren asteazken gauean.

Goizaldeko lauretan, berriz, ura sartu zen Ferixalekuko transformadorera eta Maala eta Aldaigaineneko bizilagunak ere argi barik geratu ziren. Izan ere gogoz bota zuen euria asteazkenean. Ikerlanen 63 litro/m² jaso zuten. Asteazkenean jaso zen azkenaldiko euri kopuru handiena.

Monumentuen berri izateko plakak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Monterron, Udaletxea eta San Frantzisko komentuan plakak jarriko ditu. Plaka horietan eraikin bakoitza zer den, zein estilokoa eta noiz eraiki zen irakurriko da.

Jaurlaritza Euskal Herriko monumentu garrantzitsuenak seinalizatzeko kanpaina burutzen ari da. Hori dela eta, Euskal-Herriko hainbat monumentu seinalizatu da.



Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Abenduaren 1ean eta 2an egingo dira HIESaren inguruko ekitaldiak.

Jon Salaberri gogoan HIESaren Egunean

Datorren ostiralean HIESaren Nazioarteko Eguna ospatuko dela eta, Deba Garai-ko HIES Ekimenak gertu du egun horretarako egitaraua. Iñaki Telleria, HIES Ekimeneko partaidearen esanetan, "Hies-aren ondorioz hil diren guztiak gogoratuko dira egun horretan baina bereziki Jon Salaberri". Horrez gain Batzen-ek, tolerantziaren aldeko elkarteak antolatuta, abenduaren 2an ekitaldi berezia izango da Amaia antzokian, eta hor ere omenaldia egingo zaio Jon Salaberri.

Abenduaren 1a egun seinatua izan arren, Telleriaren berbetan urtean zehar egi-

ten den lana da garrantzitsuena. "Prebentzioaren inguruko ekintzak egiten jarraitzen dugu, oraindik jendea kutsatu egiten da eta. Gainera, jendeak uste du bakarrik homosexualek eta heroinomanoek hartu dezakete la HIESa, baina gero eta gehiago dira harreman heterosexualek izan eta kutsatzen direnak". Prebentzioaren inguruan hitzaldiak eta ihardunaldiak antolatzen ditu HIES Ekimenak herri eta ikastetxeetan. Arrasaten datorren asteartean hasiko dira ihardunaldiak. Hitzaldiak ezezik, seropositiboen testigantzak jasotzen dituen erakusketa berezia izango da San Frantziskoko klaustroetan.

Gabonetako argiak

Gabonetako argiak jarrezko lana adjudikatu du Udalak. Guztira bi milioi gastatuko ditu argiak jarri eta kontsumoa ordaintzeko. Iturriotz, Ferrerías, Erdiko kalean, Olarte eta Maalako errabalan jarriko dira Gabonetako argiak.

Edukiontzia sutan

Astelehen arratsaldean su hartu zuen Kontzeziño kaleko edukiontzi batek. Edukiontzia paperez beteta zegoenez, Zubillagako suhiltzailerek etorri behar izan zuten sua itzaltzera. Ez dago garbi sua norbaitek nahita piztu ote zuen edo ez.

Musakolako taberna

Musakolako jubilatuen egoitzako taberna adjudikatuko lehiaketa kaleratu du Udalak. Lehiaketan parte hartzeko eskaerak abenduaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaletxeko idazkaritzan. Informazio gehiago nahi duenak Gizarte Sailean galde dezake.

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa *ARETXABALETA*
Tfnoa: (943) 79 24 58


ZABALDU BERRIA!!

SABURDI
urdaitegia • harategai

Sebero Altube, 7
ARRASATE
Tfnoa: 79 86 15



Besaideko Gazte Ekintza espeologia taldeko 12 neska mutil Oñatiko Argikurtz kobazulora joan ziren domekan. Araotzeko zubi ondoan dagoen kobazulo sarreratik sartu eta Arantzazu aldera ematen duen sarreratik irten ziren. Esperientzia polita eta abenturazalea benetan. Gazte ekintzakoek horrelako irteerak urtero dituzte.



Begira zer aurkitu genuen Elgoi-barren aldizkarian. **Mikel Urbesalgok**, orain arte Arrasateko udaltzainak oposaketan bidez Elgoibarren atera du postua eta bertako

udaltzain berria da. Arrasatear honekin batera, Mikel Arantzamendi Ondarrutarrak lortu du frogak gainditzea, beraz, Mikel eta Mikel dira Elgoibarko Udaltzain berriak.



AEKko ikasle talde bat bisitari izan zen gurean joan zen astean. AEKko ikasleak sarri sarri etortzen dira Arrasate press eta Telebista ikustea eta bide batez gurekin solasalditxo bat izateko. Orain gainera, arrazoi gehiago dute Arrasate press gertutik ezagutzeko; izan ere, hemendik aurrera AEKko ikasleek egingo dute asteroko inkesta.



Lasatarrak dira baina ez Arraldekoak. Zapatuan 25 Lasatar euren bikote eta bi biloba tartean Udalpe elkartean bildu ziren lehen-gusu Lasatarren lehen bazkaria egiteko. Bazkariaren ondoren, Boston taldearekin dantzaldi bikaina izan zuten. Famili honen Lasa abizena Matximentatik dator, "Otagoena" baserritik.



Itziar, Itsaso, Ane Lur eta Haizea Arrasateko neskato poxpolin hauek Txirri, Mirri eta Txiribitonekin izan ziren joan zen zapatuan. Txirrik ea forma-

lak zien galdetu eta ez zekitela erantzun zuten. Formal itxura behintzat ez dute!

IZEN PROPIOAK

● Luma bidezko 6. idazketa lehiaketan hainbat arrasatearrek saria jaso du. Jose Ramon Arrietak helduen mailan 4. saria jaso du eta **Leire Martiartuk** Sena. 55 urtetik gorakoen artean sari berezia **Alberto Ruiz de Azuarentzat** izan da. Diploma berriz, **Susana Martin, Eneritz Tirados** eta **Arantzazu Ugarte**k eskuratu dute.



MCCko langileak dira argazkikoak eta 94ko urritik apirila artean jubilatutako egin ziren. Jubilatutako baz-

kideak 72 izan badira ere, omenaldian bakoitzaren senar edo emazteak kontuan hartuz 137 lagun elkartu ziren. Bazka-


ria Zelai-Zabal jatetxean izan zuten baina bazkaltzen hasi aurretik Arantzazuko inguru ederrak bisitatu zituzten.



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



URTEKO AUKERA

Zure turismoa
CHAPIME TAILERRAK-en
erosten baduzu...

- Aparteko deskontua izango duzu
- Gainera zure erosketa ospatzeko opari bat jasoko duzu
- Eta zure ametsak abenduaren 22ra arte bakarrik atzeratzeko aukera izango duzu

Ezin duzu aukera hau pasatzen utzi!

*Eskaintza hau stockean dauden autoentzat da baliagarria.



Chapime Tailerrak

Araba Etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- Zazpigarren ihardunaldia.
- Protagonistak: Luis Gutierrez eta Iban Kortabarria.
- Taldeen aurkezpena: Resakas, Perrahotsa, Cerveceria Leniz eta Arrasate Kirolak.

Euria izan zen protagonista 7. ihardunaldian.

Zapatuan botatako euria zela eta, oso labankorra eta arriskutsua jarri zen Zaldibarko kantxa. Jokalariak nahiko lan izan zuten zutik egoten baina kantxaren egoera txarra izan arren, ez zen istripurik izan.

Txapelketaren gainean esan behar da jokaturako zazpi neurketeak irabazi dituen talderik ez dagoela. Guztiak galdu duenik bai ordea: Los Dalton, HMKL eta Baneukok ez dute oraindik punturik lortu.



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

EGUZKIGRAF →
inprimategia

Industriaidea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

BAYAR
TOKI ON

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Orlando piratas	7	6	0	1	47	15	12
Sokoakoak	7	5	2	0	45	24	12
Arrasate Kirolak	7	5	2	0	26	16	12
Kamasutra	7	5	1	1	33	15	11
Frantziskanner	7	5	1	1	35	17	11
Sortu informatika	7	5	1	1	44	22	11
Totem	7	4	2	1	31	20	10
Jotakabau	7	3	3	1	31	23	9
D. A Iriztu	7	4	0	3	36	24	8
Argi Ibili	7	3	1	3	37	27	7
Uglys Txinato	7	2	2	3	24	29	6
Kakajauri	7	2	0	5	22	26	4
Gualtrapas	7	2	0	5	24	41	4
Bukanak	7	1	0	6	21	34	2
Gaztetxokoa	7	1	0	6	19	62	2
Toss Tehaman	7	1	0	6	12	47	2
Alealee	7	1	0	6	13	52	2
Tronkoteak	7	0	1	6	2	12	1

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Fosforos	7	6	1	0	39	21	13
Okoretegi	7	5	2	0	21	6	12
Txeyenex	7	6	0	1	28	10	12
AC Surcos	7	5	1	1	30	16	11
Lorategi	7	5	0	2	18	12	10
Adelaida Haizea	7	5	0	2	44	16	10
Hirei	7	4	0	3	23	19	8
DKB	7	4	0	3	23	23	8
Fraguel gol	7	3	1	3	20	20	7
Los heredia	7	3	1	3	35	13	7
Ojo Avisore	7	2	2	3	24	24	6
6º Proiektua	7	2	1	4	19	24	5
izpun Bila	7	2	1	4	11	20	5
Berango Sukaldeak	7	2	0	5	17	20	4
Altza Porru	7	2	0	5	21	25	4
Kopyprest	7	1	0	6	13	49	2
Kirten Tropel	7	1	0	6	8	28	2
Los Dalton	7	0	0	7	16	45	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Irati STS	7	6	0	1	27	17	12
Ati que te importa	7	5	1	1	25	20	11
Trikiti	7	4	2	1	27	11	10
Anbotoste	7	5	0	2	27	12	10
Nuevo Taberna	7	3	3	1	34	17	9
Lautherbrunnen	7	4	1	2	40	24	9
Betrayer	7	4	1	2	32	24	9
Borrock Roll	7	4	0	3	24	21	8
Insert Coin	7	4	0	3	35	22	8
Los Dimy	7	3	2	2	20	18	8
Ganbelas	7	3	2	2	20	20	8
No Coment	7	3	0	4	20	22	6
Potrosorri	7	2	1	4	15	19	5
Arrasate Zoo	7	2	1	4	11	18	5
Elisabeth	7	1	2	4	12	25	4
Txarokis	7	1	0	6	23	35	2
Const Fercon	7	1	0	6	20	49	2
HMKL	7	0	0	7	15	53	0

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Aurrera Bolie	7	6	1	0	27	10	13
Cer Leintz	7	6	0	1	28	12	12
Pub People	7	6	0	1	52	19	12
Danok Lagun	7	4	2	1	28	18	10
Zotz Motz	7	5	0	2	27	19	10
Koka Juniors	7	4	0	3	27	26	8
Prerrahotsa	7	4	0	3	22	21	8
MSM Ingenier	7	3	1	3	23	12	7
Pepelus	7	3	1	3	29	23	7
Artzankos Udalaizt	7	2	2	3	18	17	6
Exc Lete	7	3	0	4	24	27	6
Leya	7	3	0	4	20	25	6
Petroleros	7	2	2	3	14	22	6
Cartanajes Igamo	7	2	1	4	24	32	5
Resakas	7	2	0	5	8	28	4
Ke Oxtias	7	2	0	5	33	24	4
Krskibalda	7	1	0	6	17	38	2
Baneuko	7	0	0	7	10	59	0

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 2 - Gaztetxokoa 4
Arrasate Kirolak 5 - Uglys Txinato 4
Argi Ibili 11 - Alealee 0
Bukanak 5 - Sokoakoak 7
Gualtrapas 3 - Jotakabau 13
D.A Iriztu 2 - Frantziskanner 7
Orlando Piratas 5 - Kamasutra 9
Sortu informatika 1 - Tronkoteak 0
Toss Tehaman 1 - Totem 5

B Taldea

Los heredia 3 - Aizpun Bila 2
AC Surcos 9 - Los Dalton 2
Ojo Avisore 3 - 6º Proiektua 3
Berango Sukald. 0 - Okoretegi Tab. 1
Kirten Tropel 4 - Altza Porru 3
Adelaida Haizea 1 - Lorategi 2
Txeyenex 3 - DKB 0
Hirei 3 - Fosforos 7
Fraguel Gol 7 - Kopyprest 3

E Taldea

Exc Lete 2 - Petroleros 3
Pun People11 - Koka Juniors 4
Resakas 2 - Prerrahotsa 4
Zotz Motz 1 - Cerv Leintz 0
Leya 4 - Baneuko 2
Danok lagun 3 - Ke Oxtias 1
Pepelus 9 - Krskibalda 2
Aurrera Bolie 4 - Cartanajes Igamo 4
MSM Ingenier 2 - Artzankos Udalaizt 2

D Taldea

Const Fercon 0 - Los Dimy 3
No Comment 1 - Trikiti 6
Anbotoste 1 - Arrasate Zoo 3
Insert Coin 10 - Txarokis 3
Irati STS 6 - HMKL 2
Ganbelas 4 - Ati que te importa 4
Betrayer 3 - Lautherbrunnen 4
Potrosorri 3 - Elisabeth 3
Nuevo taberna 5 - Borrock Roll 2

Hurrengo partiduak

8. ihardunaldia

Larunbata 25 Zaldibar

8.50 Petroleros Perahotsa
10.00 Kakajauri - D.A Iriztu
11.00 Cartonajes Igamo - Baneuko
12.00 AC Surcos - Txeyenex
13.00 Artzankos Udalaizt - Leya
14.00 Anbotoste - Nuevo Taberna
15.00 Aurrera Bolie - Koka Juniors
16.00 Berango Sukaldeak - DKB
17.00 Constr. Fercon - Ganbelas
18.00 Exc Lete - Danok Lagun
19.00 Hirei - Los Dalton

Iturripe A

11.00 Bukanak - Kamasutra
12.00 Lso heredia - Adelaida Haizea
13.00 Zotz Motz - Krskibalda
14.00 No Comment - Betrayer
15.00 Ojo Avisore - Fraguel Gol
16.00 Borrock Roll - Irati STS
17.00 Arg Ibili - Toss Tehaman
18.00 Insert Coin - Lautherbrunnen
19.00 Ke Oxtias - Cerv Leintz

Iturripe B

13.00 Sortu Informatika - Uglys Txinato
14.00 Potrosorri - Trikiti
15.00 Lorategi - Okoretegi Taberna
16.00 Totem - Gualtrapas
17.00 Fosforos - Altza Porru
18.00 Los Dimy - Arrasate Zoo
19.00 Gaztetxokoa - alealee

Igandea 26

Zaldibar

8.50 Kopyprest - Kirten Tropel
10.00 Frantziskanner - Sokoakoak
11.00 Elisabeth - HMKL
12.00 Arrasate Kirolak - Orlando Piratas
13.00 Resakas - MSM Ingenier

Iturripe A

11.00 Pub People - Pepelus
12.00 Aizpun Bila - 6º Proiektua
13.00 Ati que te importa - Txarokis

Protagonistak


Luis Gutierrez Resakas

— Zer moduz doakizue txapelketa?

— Oso txarto, gainera bi puntu gutxiago ditugu antolatzaileen iritziz ganora barik epaitu genuelako. Bi ez ezik beste partidu guztiak galdu ditugu.

— Zergatik hartzen duzu parte Zaldibarren?

— Lagun batek esan zidan eta animatu egin nintzen. Nire helburua ondo pasatzea da baina hona jendea irabaztera



dator eta borroka gehiegi egoten da herri mailako txapelketa bat izateko.

— Resakas izena nondik dator?

— Berria naiz taldean eta ez dakit izenaren nondik norakoak.

— Lesiorik izan duzue aurten?

— Ez, zorionez ez dugu lesiorik izan. Gaur arte alde horretatik zortea izan dugu.

— Nola ikusiko zenuke txapelketan emakumeek parte hartzea?

— Oso ondo baina uste dut ez liratekeela ausartuko. Hemen astokilo samarrak gara guztiok.

Iban Kortabarria Perrahotsa

— Zenbat urte txapelketan parte hartzen?

— Ni urtebete eta taldekideak bi urte.

— Nola doa txapelketa Perrahotsa taldearentzat?

— Oso irregular eta bigarren fasea ez dugu argi ikusten. Gaurdaino lau partidu irabazi ditugu eta hiru galdu eta sailkapeneko 7. tokian gaude 8 punturekin.

— Ondo pasatu edo ira-

bazi, helburua?

— Guri ondo jokatzea gustatzen zaigu eta bide batez neurketak irabaztea. Gaur esatebaterako irabazi egin dugunez ospatu egingo dugu garaipena.

— Lesiorik izan duzue?

— Bi lesionatu izan ditugu eta bat ni neu naiz. Hanka okertu nuen eta hemen nago ezin jokatuta.

— Zaldibarren emakumeak jokatzea ondo ikusiko zenuke?



— Bai oso ondo eta ez dakit zergatik ez duten izenik ematen.

Labur

■ **EGUTEGIA.** Astelehen zaldibarrekoek bilera egin zuten egutegia zehazteko. Bertan azaldu zenez lehen fasea otsailaren 24 eta 25eko asteburuan bukatuko da. Abenduko zubian berriz, ez da ihardunaldirik izango eta urteko azken partiduak 16 eta 17an jokatuko dira. Urtarrilaren 13a arte bestalde atsedena izango dute jokalariek.

■ **SANTAMAS KROSA.** Santamas krosko antolatzaileak jenda premian daude eta Zaldibar txapelketako antolatzaileengana zuzendu dira laguntza eskatzeko. Krosekoek Zaldibarko jokalariek parte har dezaten gura dute eta eurentzat sailkapen berezia egiteko asmoa dago. Talde bakoitzetik gutxienez bost jokalarik hartu behar luke parte. Intere-satuok antolatzaileei izena eman.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Resakas



Arrasate Kirolak



Perrahotsa



Cerveceria Leniz

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

● *Charo Guerrero*

Atzoko nahiak gaurkotuz

Datorren ostegunean 65 urte beteko ditu ANV-EAE alderdiak. Data boro-bil samarra dela eta, egun horretan Barakaldon ekintza berezi bat egiteko asmoa dago: gaur egungo egoerara egokitu ondoren, alderdia sortu zen garaian ateratako akordioa berrestea. Beste askoren artean, sinaketa saioan izango da Charo Guerrero arrasatearra.

- Sinaduraz aparte beste ekintzarik egin behar duzue?

- Ekintzak bi egunetan garatuko ditugu, 29an eta 30ean. Lehenengoan mahainguru bat egingo dugu, bertan historialari pare bat eta gerra zibilean ibilitako alderdikide bat izango dira, alderdiaren norabidea aztertzeko. Bigarren egunerako beste mahainguru bat antolatu dugu, Euskal Herriko batasuna zer den eta nola ikusten den eztabaiatzeko. Hego eta Iparraldeko ezker abertzaleko talde guztien bilkura izan nahi du 30ak, nolabait adieraziz gaur egungo ezker abertzalea ugaria dela. Denon artean sinatuko dugu manifestua.

- Zehazki zer esaten da sinatu beharreko idatzian?

- Alderdia sortu ondoren "Manifiesto de San Andres" izeneko dokumentua sinatu zen. Barakaldon horren egokitzapen bat egingo dugu. Besteak beste Euskal Herriaren lurraldetasuna aldarrikatzen da, autodeterminazioa eta independentziaren aldeko borondatea, ezkerraren aldeko konpromezua, Euskal Herri euskaldunaren nahia, ingurugiroaren defentsa, antimilitarismoa, arrazismoaren aurkako jarrera...

Helburu ugari. Lortuko dira noizbait?

- Honelako prozesuak luzeak izaten dira eta konponketaren batera iristeko derrigorrezkoa da borroka egitea. 1930ean amets handia ziren hainbat gauza gaur egun errealitate dira, euskararen hedapena esaterako. Herriaren ekimenez aurrerapausu batzuk eman dira arlo desberdinetan eta hortik segi behar.

- Aizu, arrazismoaren aurkako jarrerarena oraingo kontua da?

- Orain asko aipatzen da arrazismoaren aurkako borro-



ka, baina guk aspalditik daukagu hori onartuta. Hasiera hasieran onartu zen EAEn abizen erdaldundun jendea, kanpoko jendearen onarpena. "Maketo" en aurkako jarrerari aurre egin zion hasiera hasieratik, jarrera integraztailea hartuz. Horregatik gerra aurretik izugarriko hazkundea izan zuen EAEak, baina gerrak eten handia ekarri zuen. Arrasaten bertan alderdiko bi zinegotzi egon ziren urte haietan.

- EAEk historian galdutako zerbait dirudi, gaur egungo bati zer eskaintzen dio?

- Batez ere koherentzia aipatuko nuke nik. Hainbeste urte da sortu zela eta oraindik toki berdinean dago, arazo soziala eta nazionala konpontzeko ahaleginean. Guretzat aberria alderdia baino aurrerago dago.

Normala da bestalde jendeak pentsatzea, gaurkotasu-

neko alderdi bat baino historikoa izatea. Hori gertatu izana bi arrazoien ondorioa da. Alde batetik kontuan hartu behar da EAJk mundu abertzalearen historian bakar bezala agertzen jakin izan duela, esparru horretan beste inor ez balego bezala; bestetik, azken aldean ahalegin handiena HB eratzen egin genuen, geure buruaz apur bat ahaztuta. Horregatik gara hain ezezagunak. Hala ere merezi izan du, egunez egun Ipar eta Hegoaldeko ezker abertzaleen arteko lotura handiagoa da eta.

- Zu zeu noiztik zaude EAEn?

- Militante gisa ez da denbora gehiegi, baina lanean eta bere helburuekin bat aspaldidanik. Uste dut hemen badagoela herri bizi bat, aspaldiko nahi bat gauzatu nahi dena eta horretarako lanean ari dena..

● **"EAEk abertzaleen artean zegoen 'maketoen' aurkako jarrerari aurre egin zion, jarrera integraztailea hartuz"**

SHOT!

grabaketa estudioan

Alazne Portu

Abenduaren 5ean urtebete egingo du Pello Aldabe eta Iñaki Bengoa gazteek bere kabuz sortu zuten grabaketa estudioak. Orain urtebete maketa sinpleak grabatzen hasi ziren arren, gai izan dira dagoeneko lau diskoren grabaketa aurrera eramateko, beraien artean RIP taldearen zuzeneko diska eta H2SO4 Gasteizko taldearena. Bi gazte hauek indarrez sartzen ari dira musikaren munduan.

Shot! estudio honetan bakarrik bi lagun hauek egiten dute lan. Iñaki Bengoa grabaketa prozesu osoa lantzen duen bitartean Pello Aldabe talde berrien bila ibili ohi da, handik hona, kontzertu batetik bestera... maketak grabatzeko aukera eskaintzen die hasi berri diren taldeei. Hori gutxi balitz estudioaren bulego lana ere bere gain dago. Benetako negozio gizona da gazte hau.

ESTUDIOAREN SORRERA

Iñaki eta Pello lagunak dira txikitatik. Iñaki Bengoak hiru urte pasatu zituen Bartzelonan Irudi eta soina ikasketak burutzen. Baina badirudi gazte honen ideia aurretik ere finkoa zela; herrian berea izango zen estudio baten eraketa. Ikasketak bukatu, itzuli eta Pello Bengoarekin hitzegin zuen. Pellok, gaizki ordaindutako aldikako lanez nazka-

tuta zegoenez, gustora entzun zuen Iñakiren ideia berria.

Lehenengo Eusko Jaurlaritza jo zuten dirulaguntzaren eske, baina betetzen ez zuten baldintzaren bat medio, alperriko ahalegina izan zen. Azkenik Arrasateko Udalak eskaini zien hasierarako behar zuten dirua eta proiektua abian jarri zen. Lehen esan bezala estudioak urte bat darama martxan baina aurretik zenbait grabaketa eginda zituzten. Iñakiren

etxea estudio bezala hartuta bete beharreko zenbait lan aurrera eramane behar izan zuten ezagutzera eman ahal izateko. Hasieran publizitatea beharrezkoa zenez musika munduko zenbait aldizkaritan aurkeztu ziren. Dagoeneko grabatu dituzten maketak direla eta, ate asko ireki zaizkie dizkie publizitatearen beharrik gabe.


GRABAKETA PROZESUA

Disko edo maketa baten grabaketa egiterakoan taldearen instrumentu guztiak banan banan grabatu behar dira. Lehenik bateria hartu eta honen grabaketa egiten da, gero bajoa, kitarra... eta honela guztiak grabatu arte. Azkenik ahotsa sartzen da. Horrela abestia osatuko duten zati guztiak kontrolpean izango dira. Kontrol mahaiko botoi bakoitzak taldeko instrumentu bakoitza kontrolatzen du. Nahasketa prozesua hasteko prest dago guztia.

Nahasketa prozesuan abestia osatuko duten instrumentu guztiak batu egiten dira. Panelean agertzen diren botoi ezberdinei esker instrumentuei nahi besteko inten-



Iluna Beltza taldearen maketa grabatu dute, laster diskoa ere bertan grabatuko dute.



Pello eta Iñakiren estudioetik talde ugari pasatu da.

tsitatea ezartzen zaie. Helburua kitarra gehiago entzutea bada botoi egokiari eraginez abestiari tonu ezberdinak ematen zaizkio. Era berean ahotsari efektu ugari emateko aukera dago. Guztia batera grabatuz gero ez litzateke garbitasunik lortuko.

Nahasketa prozesua zaila edo erraza gerta daiteke, gakoa abestiaren eraketan aurkitzen da. Askotan lokal batean eraturako abestiak arazoak sor ditzake, horrelakoetan soinuaren garbitasuna eskasa izaten da eta. Talde hasi berriek beren abestien muina osatu gabea izan ohi dute. Gerta daiteke abesti osoa ere aldatu behar izatea. Lanaren kontuak!!

Maketa baten grabaketak astebete inguru irauten du; aldiz disko batenak gutxienez 15 egun behar ditu. Kontuan hartu behar da disko batek kalitate handiagoa eta landuagoa behar duela. Maketa freskoagoa izaten da, aurkezpen bat.

MUSIKAREN MUNDUA

Shot! grabaketa estudioan musika estilo guztiak grabatzera ohituta daude, musika klasikotik hasita Heavy edo-

ta Rock and roll grabatzeraino. Musikaren alor guztien eza-gutza orokor bat izatea beharrezkoa da. Honela gaur egungo talde berrien joerari buruz galdetzean: "gazte askok bizkortasuna martxa nahiarekin parekatzen du" erantzuten dute.

Euskal folkloreak hartu duen indarra ere aipatzekoa da. Lan asko folklorerantz bideratzen dira.

Gaur egun jendearen ekimen ezak musikaren mundua murrizten du. Bi gazte hauek Iruña gaur egungo musika berriaren gunetzat dute. Kontzertu ugari onduz hirian jendea batetik bestera mugitzen da, eta honek ideia original asko eskaintzen ditu. Adibide gisa "Flitters" taldea aurkezten dute, hauen nahia zaila izan arren beren ideien originaltasunak sekulako aldaketak dakartza. Momentu honetan Iruñako bost talde ari dira Shot! estudioan grabaketak egiten.

Musikaren munduan estudio batek aurrera egin dezan izeneko estudio baten laguntza garrantzizkoa da. Talde askok grabaketa bat egiterakoan hemendik kanpo eginez arra-

kasta izango duela uste du. Eta gauzak ez dira horrela. Pello eta Iñakik Bilboko Kreator diskoetxearen laguntza izan zuten, honen bidez Ruper Ordorikaren diskaren grabaketa beraien estudioan egin zen.

Era honetan taldea berria izaten denean, Iñaki Bengoa hauen ezjakintasunaz kezkatzen da. Askotan bere estiloa finkatu gabeko talde gazteekin topo egiten du eta kasu hauetan Iñaki bera da estilo bat ezartzen diena. Exigentzia gutxi izanik taldeak bere eskutan uzten du lan hau.

Taldeak arrakasta badu, horrek izugarritzko publizitatea eskaintzen dio grabaketa egin duen estudioari. Pellok dioen bezala, hori da estudioak izan dezakeen publizitate-rik handiena.

Orain Arrasateko talde batekin lanean aurkitzen dira Iñaki eta Pello, "El Desvan del Macho" taldearekin. Gazte hauek kalitate handiko lan bat egiteko prest aurkitzen direla frogatu dute, musikaren alorrean gusto ezberdineko talde bat osatuz edozein grabaketa aurrera eramateko gai direla azalduz.




Grabazio diferenteen hainbat momentu.

Abraham Olanori omenaldia Dorletako Santutegian

Abraham Olanok omenaldia jasoko du Gatzagako Dorletako Amaren Santutegian zapatuan goizeko 11ak aldera. Gipuzkoako Txirrindulari Elkargoak, Gatzagako Udaletxeak, Deba Garaiko zikloturisten elkarteek eta Dorletako Ama Txirrindulari eskolaren laguntzaz antolatu du munduko txapeldunari eskainiko dioten omenaldia.

Arrasateko zikloturistak goizeko 9.15etan Monterron parean elkartuko dira Gatzagako bidetara ekiteko. Zikloturistekin batera nahi duena joan daiteke, omenaldia guztientzat dago zabalik eta. 10etan berriz, inguruko txi-

rindulariek Eskoriatzako plazan izango dute zita eta Dorletako Santutegirantz abiatuko dira denak elkarrekin. 11etan Leintz Gatzagako Udaletxean harrera egingo diote Munduko txapeldunari. Ondoren, Dorletan ekitaldi erlijiosoa burutuko da eta Abraham Olanok Txirrindularien zaindariari, hau da, Dorletako Amari loreen eta maillotaren eskeintza egingo dio. Meza Gorosarri abesbatzak alaituko du. Dorletako omenaldi ekintzak bukatu ondoren, Donostiako Hotel Costa Vascan bazkaria izango dute antolatzaileek eta Abraham Olanok.



Abraham Olanok Mapei taldeko txirrindularia.

Mondrako emakumezkoak sailkapeneko buruan jaun eta jabe

Mondrako emakumezkoak 28 punturekin sailkapeneko liderrak dira Elgoibar taldearekin parekatuta. Gaur arte bederatzia ihardunaldi jokatu dituzte, zortzi irabazi eta bakarra berdinduz. Golei dago kienez, gutxien jaso duen taldea da, lau bakarrik eta hogeita zortzi sartu ditu. Datu hauek ikusi ondoren, Juanina Garaik entrenatzen dituen neskek ezin hobeto dabiltzala esan daiteke eta bide beretik jarraituz gero, lider bukatzeko aukera asko izan ditzakete. Hala ere ez da ahaztu behar oraindik denboraldia luzea dela eta denetik gerta daitekeela.

Datorren domekan



Mondrako emakumeak bi aste barru estreinatuko duten arroparekin.

Mondra eta Lizardi izango dira lehian Atxabalpen goizeko 11.30etan. Zarautzko taldeak 12 puntu ditu eta 9. dago sailkapenean. Itxuraz

irabazteko moduko neurketak dirudi, baina hori zelaian ziurtatu beharko dute.

Bestalde, Mondrako emakumeen babesle berria

Loramendi kirolak da. Bi urtetarako sinatu dute akordioa eta laster batean jantzi-ko dituzte arropa berriak nesken taldeko jokalariek.



Urbina-Maltzagak zazpigarren garaipena lor dezake.

Rugbykoek ezin dute kale egin Irunen.

J. C. Harris saskibaloijokalaria berriro Arrasaten

J.C. Harris Arrasatera etorriko da domekan baina ez Urbina Maltzaga taldean jokatzerako, euren kontra baizik. Urbina Maltzaga eta Burgosko Espolon taldeen arteko partidua jokatuko da domekan arratsaldeko 6etan eta Harris Burgosko taldean egongo da. Talde biak parekatuta daude sailkapenean 17 punturekin, sei neurketa irabazi eta bost galdu eta gero. Arrasateko taldean ez da nobedaderik izango. Jokalariek normaltasunez entrenatu dute eta Basconiarekin Europako partidua jokatzerako joan direnak ere domekarako Arrasaten izango dira. Espolon taldean esperientzia handiko jokalaririk beterranoak daude eta hori beti gazteen kalterako

izaten da. Samaniegoren mutilek abiaduran oinarritu beharko dute neurketa. Aurkariak beterranoak izanda, neka araztea izan daiteke estrategia onena partidua aurrera ateratzeko.

Eskubaloikoek garaipen premiaz

Lehen mailako eskubaloit taldea Pontevedrara joango da. Lalinek eta Arrasatek elkarren kontra jokatuko dute zapatuan arratsaldeko 7etan. Talde galiziarrek bi partidua irabazi, bi berdindu eta bi galdu ditu, 6 punturekin sailkapeneko 6. dago. Arrasate sailkapeneko zuloan da puntu bakarraz. Orain arte ez du partidurik irabazi nahiz eta behin baino gehiagotan irabazteko

moduan egon. Arrasatearren egoera ez da ona une honetan eta denboraldi hasierako helburuak bete nahi badituzte, espabilatzen hasi beharko dute. Bestela, nekez lortuko dute zulotik irtetea.

Rugbyko jubenilak Ordiziaren kontra

Jubenilek Ordiziaren bisita jasoko dute zapatuan arratsaldeko 4etan Gargartzan. Nagusiek berriz, Irunen izango dute zita domekan eguerdiko 12etan Playa Handi rugby zelaian. Irabazteko moduko partidua izan daiteke. Patxi Gorosabelen mutilak dakiten bezala jokatuz gero eta urduki ez badira jartzen puntuekin etor daitezke.

Arrasate kirol proiektuarekin mendira

Arrasateko kirol proiektuak Besaide Mendizale Elkartearekin batera mendirteera antolatu du datorren domekarako. Hilean behin antolatuko dituzte era horretako mendirteerak. Domekakoa 5. mailatik 8. mailara arteko ikasleei dago zuzenduta eta Txindokira joango dira. Autobusa Garaibaiko geltokitik irtengo da goizeko 8etan. Neska mutilek besteak beste hamarretarako, kantinplora, kanguroa eta niki bat eraman beharko dute aldatzeko, baita mendiko botak ere. Lehendabiziko irteera honetan urte osoko mendirteeren egitaraua banatuko zaie neska mutilei.

Mondra eta Juventus Olanben

3. mailako Mondrak azken sailkatuaren kontra neurtuko ditu indarrak Gasteizko Olanbe futbol zelaian domekan goizeko 11etan. Mondrak Elgoibar liderrari irabazi zion domekan eta lorpen hori garrantzitsua izan da taldea animatzeko eta hobeto kokatuta egoteko gai direla erakusteko. Hala ere, domekako kolisten arteko partidua ez da erraza izango eta garaipena lortzeko jokalariek dena eman beharko dute zelaian.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Ruper Ordorika

“Disko honetako letrak besteetakoak baino sakonagoak dira”


Ruper Ordorikak HIES Ekimenak abenduaren 2rako antolatutako kontzertuan joko du. Oñatiarrak irailean kaleratu zuen bere azken diskoa, “So’ik so”, eta bertako kantak eta beste asko abestuko ditu jendarean. Laister hemen izango dela eta, berarekin hitzegin dugu.

— “So’ik so” alde batetik bestera ibiliz grabatutako diskoa da. Non ibili zarete?

— Beno, diskoaren gehiena Gasteizen grabatu genuen, Donostian ere ibili ginen eta nahasketak Ingalaterran egin genituen. Alde batetik bestera ibili ahal izateko grabaketa materiale berezia behar genuen, mugikorra izan behar zuen eta materiale hori Arrasateko Shot! estudioan alokatu genuen.

— Boskarren disko honetan, Mugalariak taldeaz gain, beste musikari batzuk hartu dute parte ere. Horrek zure estiloa aldarazi du?

— Bai. Disko honek aurrekoen ondoan estilo desberdina duela esan daiteke. Beste soinu baten bila nenbilen eta disko hau musikaren bilakaera baten emaitza dela esango nuke. “So’ik so”k estilo askotik edaten duen sonoritatea dauka. Brooklynen Ben Monder kitarrajoleak adibidez, jotzeko oso estilo pertsonala dauka eta horrek giro berezia eman dio diskoari. Jakina, gainontzeko musikariaren aportazioek ere diskoaren soinu berri horretan eragina izan dute. Musikari horiek Parisko



Laurent Vernerey kontrabaxua, Andrej Olejniczak klarinete-jole poloniarra eta Rori McLeod filarmonikajolea izan dira. Guztiak dira lagunak eta musikari oso onak, horregatik sartu nahi izan nituen disko honetan.

— Musikari edo artista bat geroz eta urrutiago ibiltzen den heinean etxean ezagunagoa eta baloratua-

goa izaten dela esaten da. Zuri ere hori gertatu zaizu?

— Esan esaten da, baina ez dut uste nire kasua denik. Horren aurrean nolabaiteko prebentzio bat dagoela uste dut, hau da, zenbaitek esaera horren aurrean txarrera pentsatzen dute; hori esatea norbait alokatzea dela uste du askok. Euskal Herriatik kanpo dexente ibili naiz eta

kanpoan lagun asko egin ditut. Baina ez naiz kanpora joan hemen ezagunagoa izateko, adiskidetasun kontuengatik baizik. Euskal Herriko jendeak ez du horrela pentsatzen eta jokutzen. Herri honek, kulturari dagokionez behintzat, autonomia bat baduela uste dut. Euskal prentsan ere badago horren aurkako joera bat. Dena den, norbaitek arrakasta pixka bat lortzen duenean jendea gaizki pentsatzen hasten da askotan. Ama Euskal Herria beti presente dagoela esaten da. Badirudi gu hezi gaituztela inon gehiegi ez nabarmentzeko, zeren gure legea “egin nahi duzuna baina ez azaldu larregi” da. Negargarria da hori.

— Boskarren disko honetan zeri kantatzen diozu?

— Modu erretorikoan esateko, kantu bakarra dagoela eta horren gainean bertsioak egiten ditugula esaten dut nik, gaiak hor daude beti eta. Dena dela disko honetako hitzak besteetakoak baino gehiago sakondu ditudalakoan nago.

— Abenduaren 2an HIES Ekimenak Amaia Antzokian antolatutako kontzertuan joko duzu. Zer moduzko publikoa da Arrasatekoa?

— Oso ona da, benetan. Gainera, Arrasaten dinami-ka berezia dagoela uste dut. Zenbait gauza oso ondo egiten dira Arrasaten eta urte gutxitik hona asko altxatu da herria. Ni gustora joango naiz jotzera.

“Norbaitek arrakasta
pixka bat lortzen duenean
jendea gaizki pentsatzen
hasten da askotan”

Ipuinak idazten ikastea AEDren tailerraren helburua

AEDk ipuin tailerra antolatatu du abendurako. Ekimen honek joan den urtean eman zituen lehen pausoak, iaz ere antzerako beste bat burutu zen eta. Marije Gomez ipuin-zale arrasatearrak emango ditu eskolak eta tailerrak 10 orduko iraupena izango du.

Idazteko zaletasunari utsi nahi

Tailer honen helburua, idazteko zaletasuna dutenei baliabideak eman eta zaletasun horri eustea da. Lagun askok hartzen du parte AEDk urterō antolatzen duen ipuin lehiaketan nahiz Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren sariketan eta horiek dira hain zuzen ere iazko tailerrean parte hartu zutenak.

Marije Gomez ipuin-zalaren ustez, "beharrezkoa da idaztea gustoko izatea, hau da, norbait eskolatik edo beste nonbaitetik behartuta etortzen bada ez da emaitz onik lortzen".

Iazko tailerrean ipuin hasiera bat ematen zitzairen partehartzaileei eta ipunari



Marije Gomez ipuin-zalea.

muina eta bukaera ematea eskatzen zitzaien. Bestalde, zapatu goizetan Arrasate Irratira joan eta eurek egindako ipuinak irakurtzen zituzten nahi zutenek. Idazle ospetsuen obrei buruzko ausnarketak ere egiten zituzten. Iazko tailerra froga moduan ikusten du ipuin-zale arrasatearrak eta

aurtengoa beste modu batean bideratu nahi luke.

Paper normaletan idazten irakasteaz gain, postaletan idazten irakatsiko du Marijek abenduko tailerrean. Egunkarietan agertzen diren komiki tiretako testuak asmatzen ere irakatsiko du. Beste teknika bat, imaginazioa bul-

tzatzeko batez ere, kaxa bate-tik ateratako hainbat objektu desberdinekin istorio bat sortzea izango da.

Irakurle gutxi baina ipuin-zale onak

Eskoletan horrenbeste idatzi eta gero arrasatearrek irakurtzeko daukaten zaletasun urriak erabat harritzen du Marije Gomez: "Ez dut irakurtzeko zaletasunik ikusten Arrasaten. Badakit liburuak garestiak direna baina liburutegia hor dago eta ez dut uste jende askok jotzen duenik bertara. Bestalde, iaz tailerrean izandako esperientziari begiratuta, herrian oso idazle onak daudela ikusi nuen."

Tailerrean izena eman nahi duena denboraz dabil oraindik. Izen-ematea 77 12 28 telefonoan egin behar da. Tailerra abenduan hasiko da eta oraingoz zapatu goizetan izango dira eskolak. Dena dela, partehartzaileek eskatutako egun eta orduen araber moldatu daiteke ipuin tailerra.

KANPAZAR FUAT

AZKEN BELAUNALDIA TEKNOLOGIAN.



BRAVO

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 184 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 193 Km/h)
2.0 20v (147 cv, 210 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

ERAKUSKETA:
Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa 79 77 66




BRAVA

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 180 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 190 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

TAILERRA
Bizkaia Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tfnoa 79 41 98

K

anpin-dendak oso baliagarriak suertatu zaizkiela 1958. urteko bidaiari haiei aipatzen zen joan den asteko fotozaharrean. Horra horren erakusgarri Treverisen jarri zuten kanpamenduko pare bat argazki. Batean ederki asko ikusten dira bidaia osoan lagun izan zituzten autobus biak eta baita kanpin-dendak ere. Bestean Ramon Heriz kitarra-jolea eta Karmelo Eriz soinu-jolea agertzen dira, kanpamenduan zegoen neskato bat ondoan dutela. Biek, Antzuolako txistulariarekin batera, zerikusi handia izan zuten bidaia osoan zehar gozatu ahal izan zen giroan. Hirugarren argazkia ez da oso ona, baina kuriositate gisa aukeratuta dago. Izan ere, bertan, besteak beste, Jose M^a Arizmendiarieta agertzen da autobusaren ondoan, sotana barik eta manga motzetan. Diotenez, orduan, nekez ikusten ei zen halakorik, apaiza eta sotana barik.



Ez pasatu orrialdea!

Iragarki hau irakurtzeak lan asko kenduko dizu.

Zure etxebizitza jantzi nahi baduzu, erreformak egin edo gelaren bat apaindu...

Behar duzun guztia ANEREA n aurkituko duzu:

Bai guzti, guztia zure zerbitzura:

- Salmenta
- 1.500 m²tik gorako erakusketa
- Diseinua
- Dekorazioa
- Erreformak
- Apaingarriak
- Muntaia, gremio guztiak
- Etxerako altzariak
- Sukalde altzariak
- Bainu altzariak
- Keramika
- Elektragailuak
- Aroztegia: Zura, PVC, aluminioa
- Kristaldegia
- Su bajuak
- Lanparak
- Mahai-tresneria
- Gortinak, tapiz, edredoia
- Eta abar

Eta dena toki berdinean!!

*Abenduaren 1ea zabalduko da.
Bisita gaitzazu!*



ANEREA

GALERIA DEL HOGAR

Markulete Industrialdea 21, 22 pabilioiak Tfnoa: 79 21 26
ARRASATE

DAVID THOMAS

&

The 2 Pale Boys

**MUSIKA
EMANALDIA**

**Abenduaren
1ean (ostirala)**

Gaueko 10.30etan

**AMAIA ANTZOKIKO
HALLEAN**

Sarrera: 300 pta.

**Taberna zerbitzua
izango da (Aterpe)**

*TIME OUTek 1994ko 10 SHOW
ONENEN ARTEAN JARRI ZUEN
THE PALE BOYS TALDEA.*

gm!
gaztemaniak



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Z E R N A H I A G O ?

Lide Madariaga

“Egizabal” oinetako dendakoa



- Ze zapata estilo eramaten da negu honetarako? Abotinatua eta mokasinak.
- Bezeroei kasu egitea lan nekeza da? Ez, oso lan atsegina da.
- Larruzko ala antezko zapatak? Larruzkoak.
- Nongoa da “Camper” zapata etxea? Mallorkakoa.
- Zenbat zapata marka duzue dendan? Hogeitabat.
- Zenbat zapata pare erabiltzen duzu zuk? Lau.
- Erretzen duzu? Ez.
- Ezkonduta zaude? Bai.
- Duela zenbat urtetik? Hemeretzi.
- Maiteminduta zaude? Bai.
- Zer falta zaio Arrasateri? Aparkaleku gehiago.
- Inguruko jatetxerik onena? Bedoñako Errastiko jatetxea.
- Egin duzu sekula erregimenik? Ez.
- Non erosten duzu arropa? Arrasaten.
- Prakahak ala gonak? Prakahak.
- Zerk ematen dizu lotsa? Elkarrizketa hau egin eta Arrasate Pressen agertu behar dudala jakiteak adibidez.
- Baba beltzak ala txuriak? Beltzak.
- Hasi zara Gabonetarako opariak erosten? Ez.
- Non ospatzen dituzu Gabonak? Bergaran eta Arrasaten.
- Zein egunkari irakurtzen duzu? Euskaldunon Egunkaria eta El Diario Vasco.
- Ze liburu irakurtzen ari zara? “El mundo de Sofia”.
- Irratia ala telebista? Irratia.
- Irrati bat? Euskadi Irratia.
- Ze oinetako zenbaki daukazu? 38a.

LABURRAK

Arrasate Musikaleko Santa Zezilia Kontzertua

Sta. Zezilia musikarien patroien eguna ospatzeko, Arrasate Musikaleko Gantbara Orkestrak kontzertua eskainiko du bihar San Juan Bataiatzailearen parrokiaren arratsaldeko 8etan. Jesus Maria Echeverriaren zuzendaritzapean.

Musikariek Haydnen 6. Sinfonia, Vivaldiren Concerto Ripieno eta Hindemithen Tuttifantchen suitea joko dute.

“Gaztemaniak” en kontzertua

“Gaztemaniak” en egitarauaren barruan, abenduaren leian David “Thomas and The 2 Pale Boys” taldeak kontzertua eskainiko du Amaia Antzokiko hallean. Talde ingeles honek soinu asko nahasten ditu: melodeona, kitarra eta bibolina besteak beste eta bere emanaldiak oso ikusgarriak izaten dira. Kontzertua 10.30etan izango da eta sarrerak 300 pta. tan salduko dira.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

• ESAERA •

“Lan egin ezazu delituak ekiditzeko horrela ez duzu zigorren beharrik izango”

CONFUCIO

• JEROGLIFIKOA •



Euskal Herriko egunkaria.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10			11			
12		13		14		
15			16			
17						18
19						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Jose Jaime, ARKO-ko lehendakaria. 8. Asteazken. 10. Zuek eta ni. 11. Jari. 12. Euzko Nekazarien Bazkuna. 14. (Ald.) Goilare handi. 15. Dotoretza tesia baino apalagoa. 17. (Ald.) Sao Tome ta Printzeko moneta. 18. Burgosko ibilgailuetan. 19. Zerbait lodiago den zatia.

Bertikalak 1. Landareekin zerikusia duena. 2. Egun guztietan. 3. Alfabeto grekoko 13. letra. 4. Substantzia, materia. 5. Ozpin bihurtu. 6. Hunoen errege eta buruzagia. 7. Ugaldtu. 9. Euzko Nekazarien Alkartasuna. 13. BASABIDEko kontsonanteak. 16. Elektrikoki kargaturiko atomoa. 18. Alfabetoko 2. letzaren izena.

• HOROSKOPOA •

Aries Krisi larrian murgilduta ei zaudete. Segituan estutzen zara.

Taurus Izugarri ondo abesten duzu. Manager bat aurkitu beharko duzu.

Gemini Komeri galantak egiten dituzute komunean sartzen zarenean.

Cancer Leher eginda, izerditan blai baina pozik. Horrela bukatzen duzue eguna.

Leo Aspertu egiten zarela klasëan? Bada, esan!

Virgo Oraindik gogoan duzue udan ezagutu zenuen hura?

Libra Zaindu gibela eta begiratu kolesterol mailari.

Scorpio Aste beteko jaia komeni zaizue. Estuegi bizi zara.

Sagitaris Ezetz asmatu nor ikusiko duzun aste honetan?


Capricorn Zure esperientziarekin gauza on asko egin daiteke.

Aquarius Lasai zaitez. Datorren hilean once-ko saria lortuko duzue.

Piscis Makal ikusten zaizue; gehiago gosaldut beharko duzue.

Otxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI




Annia de Codornis

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

“Gure objetibotik”: arrazakeria aztergai

Datorren ostegunean, hilak 30, Jon Iñaki Lasak arrazakeria aztertuko du bere programan. Gai interesgarri horri buruz hitzegiteko, “Kamelamus Adikerar”eko ijito euskaldun batek, Sri Lankan jaio zen Azkoitiko Lanbide eskolako zuzendariak, Gipuzkoako “SOS Arrazakeria” elkarteak Agustin Unzurrunzaga partaidea eta Javier Luengok, udan Ceutan afrikako etorkinei laguntzen egon den gazteak hartuko dute parte. Mahaingurua gaueko 9.30etan izango da.



KOMIKIA



Iñigo Ixe-ixa komiki taldea.



24 Ostirala
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
Elkarrizketa: Jose Ramon Elortzak, Elkarriko kideak, Arrasateko Elkarriren tailerlean zer egiten den azalduko du. Pedro Mari Ruiz de Azuak, Juan Jose Uriartek, Jone Astigarragak eta Antton Mendizabalek, Elkarriren *Bakerako Borondateen Kontratua* zergatik sinatu duten azalduko dute.

27 Astelehena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

28 Asteartea
19.30etan
Marrazki bizidunak
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

29 Asteazkena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea

30 Osteguna
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Gure Objetibotik
Gaia: Arrazakeria

1 Ostirala
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozotaria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerías, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Bengoa, 8. Eguaz-ten, 10. Gu, 11. Ipint, 12. ENB, 14. Hiaz, 15. Testina, 17. Arbod, 18. Bu, 19. Lotune.
Bertikalak: 1. Begetal, 2. Egunero, 3. Nu, 4. Gai, 5. Ozpindu, 6. Atila, 7. Anitzu, 9. ENA, 13. Bsbid, 16. Ioi, 18. Be.
Jeroglifikoak: Deta.

Etxebizitzak

- **Eskoriatzako sarreran** jantzitako pisua alokatzen da. Tfnoa: 79 87 26.
- **Lagun bat behar da** Bilboko Alde Zaharrear pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.
- **Bi oheko logela alokatzen da** eta nahiez gero pentsio osoan. Tfnoa: 79 40 53.
- **Lokala alokatu nahi dugu.** Egoera txarrean badago guk konponduko dugu. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Etxebizitza bat alokatuko nuke.** 50.000-60.000 pta. bitartean. Interesatuak dei egin 79 90 09 tfnora. Josema.
- **Pisua alokagai Juan Carlos Gerra plazan.** Dei egin goizez 79 35 50.
- **Pisu baten gela bila nabil.** Tfnoa: 79 19 96. Ana.
- **Ferrerias kalean 200 m²ko lokal ederra** alokagai. Edozein gauzetarako baliozgarria. Ikusteko: 79 18 95.
- **Etxebizitza salgai** Loramendi kalean garaje eta guzti. Tfnoa: (91) 593 24 71. Fernando.
- **Makatzenen etxebizitza salgai.** Eguzkitsua, 3 logela, jantokia, sukaldia, ganbara eta igogailuaz. Tfnoa: 79 56 98.

Lana

- **UBI mailako matematikak eta fisika** irakatsiko dizkidan irakasle bila nabil. Ahal bada euskaraz. Tfnoa: 79 96 05.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egin,** umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.

- **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko goizeko 8etatik 2etara. Tfnoa: 79 68 18. Idoia.
- **Filogia Klasikoan lizentziadunak,** latina, grekera mordenoa eta klasikoa emango lituzke. Tfnoa: 77 14 14. Dei egin 5etatik 7etara.
- **Neska prest etxeko lanak egin** eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Esperientziadun neska umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Injinerutzako 1. mailako** fisikako klaseak hartuko nituzke. Tfnoa: 71 50 72. Goizez deitu.
- **Emakumea lan egiteko gertu.** Etxeko lanak edo umeak zaindu. Tfnoa: 79 74 92.
- **AEK-k EGArako irakaslea behar du.** Dei egin 77 03 69 tfnora.
- **Euskarazko 2. eta 3. urratseko klaseak** ematen ditut 7etatik 8etara. Tfnoa: 77 04 98.
- **Euskaraz, ingelesez,** gazteleraz eta beste hizkuntzatan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.
- **Umeak zaindu** edo denda baten lan egingo nuke. Dei egin eguerdian edo gaueko 10etatik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakel.
- **Kanguro lana egingo nuke.** Gauzez edo egunez eta nahi dituzun orduak. Tfnoa: 79 43 79. Leire.
- **UBI mailako matematikak eta fisika** irakatsiko dizkidan irakasle bila nabil. Euskaraz hobeto. Tfnoa: 79 96 05.
- **Ingelesezko klase partikularrak ematen dira,** tituloduna naiz eta esperientziaduna. Tfnoa: 79 28 28.
- **Neska gertu umeak edo gaisoak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 92 86. Ainhoa.
- **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Etxean, dendan...** edozein lanetarako gertu. Tfnoa: 79 76 45.

Salerosketak

- **Otsein markako garbigailua salgai.** Oso egoera onean eta gainetik betetzeko. Sofa-kama bata ere salgai dut. Tfnoa: 79 35 45.
- **Samsung markako idazteko makina salgai.** Prezioa: 18.000 pta. Tfnoak: 77 14 96 eta 79 29 68.
- **Oso egoera onean dagoen Seat 127a salgai.** SS-K. Oso prezio onean!. Tfnoa: 79 97 23.
- **Yamaha MT 8 X magnetofonoa salgai.** 8 pista. Berria. Tfnoa: (945) 27 44 26.
- **Liburuendako koloretako** metalezko apalak salgai. Tfnoa: 77 07 82. Marije.
- **Paolo Soprani akordeoia salgai.** 96 baxu, oso egoera onean eta oso merke. Tfnoa: 79 40 51.
- **Bisoizko berokia salgai.** Estrenatu gabea. Tfnoa: 79 45 86. Montse.
- **Turbo Keroseno berogailua salgai.** Bi bonbonaduna. Berri berria dago. Tfnoa: 79 03 67.

Denetarik

- **Arrabala dendan betaurreko graduatu batzuk agertu dira.** Zureak badira dendan bertan ditugu. Tfnoa: 79 23 40.
- **Mintza praktika egiteko** jatorrizko ingeles baten bila nabil. Tfnoa: 79 26 28.
- **Azaroaren 8an Arrasatetik Eskoritzara** motorean nindoala giltzak galdu nituen. Aurkitu bidituzu dei egin 79 75 80 tfnora.
- **Egunero Gasteiza joaten naiz** goizeko 8etan autoz Lekua dut, beraz, etorri nahi baduzu eramateko prest nago. Tfnoa: 77 02 74.

Aste Gazte

Ikastaroak

• Hastapeneko "Makilaia eta antzerkirako karakterizazio tailerra" Arrasaten. 60 orduko iraupena. Jorratuko diren gaiak: materialak, zuzenketak, argi ilunak, efektu bereziak... Informazio gehiago, Gazte Bulegoan.

Gaztemaniak

• Abenduaren 1ean, "David Thomas The Two Pale Boys" bandaren emanaldia Amaiaiko hallean (Time Out-ek 1994ko 10 Show onenen artean jarri zuen The Pale Boys taldea). Gaueko 10.30etan.

Sarrera: 300 pta. Taberna zerbitzua izango da.

Lana


- Andoaingo Udalak, Kirol Teknikari lanpostu bat kaleratu du IVEF edo bestelako unibertsitateko lizentziatura gehi 2 urteko esperientzia kirol alorrean izatea eskatzen da. Epea: azaroak 27.
- Zizurko Udalak, Euskara teknikari lanpostu bat betetzeko deialdia egin du. Erdi mailako Unibertsitate titulua eta EGA edo baliokidea izatea ezinbestekoa da. Epea: azaroak 29.

Lehiaketak

- Santamaina auzoko Gabonetako V. lehiaketa, auzoko neska-mutilei zuzenduta. Modalitateak: a) ipuina/ idazketa. b) marrazki/ ipuina. 3 kategoria. 1) 8 urte arte, 2) 9 -12 urte, 3) 13-16 urte. Lanak aurkezteko azken eguna: abenduak 1.
- Bizkaiko Idazle Alkartearak, "V. Euskal esakera eta berba berezien lehiaketa" deitu du. Norberaren herrian edo inguruetan erabiltzen diren 3 esakera edo 5 berba berezi bidali behar dira, gutxienez. Esakera eta berben jatorrasuna, aberastasuna eta kopurua edukiko dira kontutan. Epea: abenduak 31.

"Agian egunen batean utziko diete gazteei beren gaztaroa asmatzen"


QUINO, MARRAZKILARI KOMIKO ARGENTINARRA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

PEUGEOT 406

AUTOAZ GOZATZEKO



EL CORREO ESPAÑOL
EL PUEBLO VALE

El Correo 1995ko azaroaren 4a

"Peugeot 406 gaingitu beharreko aurkaria... Prestazioei dagokienez, duda barik, gaingitu ezina da eta beste kategoriatan ere aurre egingo lieke inolako konpleju barik...".

Auto vía

Autovia 1995ko urria, 66. zenbakia

"406a, ordago handira... zuzeneko lehen kontaktuaren ondoren ematen du Peugeot-ek bere markak gaingitu dituela...".

autopista

Autopista, 1995ko urriaren 10etik 16ra, 1891. zenbakia

"Peugeot 406, modu onean... 406aren inguruan zerbait azpimarratu beharko balitz, hori errepidean duen estabilitatea izango litzateke. Hori Peugeot-en ohitura bihurtzen ari da, kasu honetan gainera gidatzerakoan izugarriko erosotasunaz lagunduta...".

autopista

Autopista, 1891. zenbakia

"... Peugeot 406 berriaren estabilitatea bere kategoriako onenen artekoa da...".

INFORMACION DEL AUTOMOVIL

Informacion del automovil

"Peugeot 406, tradizioa eta modernitatea... Peugeot-en 406 seriea bere mailan erreferentzia bilakatzeko pentsatuta dago...".

top auto

Top Auto 1995ko urria, 72. zenbakia

"Peugeot 406, balore segurua... Goi mailako estabilitateaz eta hobeto egin ondoren Peugeot-ek 405a ordezkatzeko askoz ere kotxe hobea atera du... osoko forma borobilak, aerodinamika eta erakartasun ederraz...".

El Semanal

El Semanal 1995ko azaroaren 19a

"Peugeot 406... bere estilo dotore eta serioak bere arrakastan zerikusi handia izango du. Bastidorearen funtzionamendua eredugarria da eta martxan erosotasun handia eskaintzen du...".

Motor 16

Motor 16 1995ko azaroaren 21, 631. zenbakia

"Peugeot 406... gaur egun erdi mailako berlina batean erosotasunaren eta estabilitatearen arteko oreka perfektuena lortuz, biak gaingidiezina...".

COCHE actual

Coche Actual 1995ko azaroaren 20tik 26ra, 631. zenbakia

"Peugeot 406... kompetentziaren aurrean bere estabilitatea eta erosotasunagatik bereizten da...".

406
PEUGEOT



EKOMOBIL

Zaldispes kalea, 2
(Ospitalaren ondoan)
Tfnoa: 79 97 12
ARRASATE

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



*KOLOREA.
Bainuak
jazteko era
berria.*

Kolore, azalera, materiale eta forma berriek aukera anitzak eskaintzen dituzte. 'IKER'en guzti hau zure espaziora moldatzen dizugu txoko praktikoa eta beroak sortuz.

'IKER'en zure proiektua zure eskura dago.

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43



BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42